# Xedapen Orokorrak

## LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

### Zk-4699

258/1998 DEKRETUA, 1998ko irailaren 29koa, Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren jarduera sozioekonomikoen egokitzapenerako eta garapenerako egitaraua onesteko dena.

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 16. Atalak honako hau ohartematen du: Eusko Jaurlaritzak Urdaibaiko jarduera sozioekonomikoen egokitzapenerako eta garapenerako egitarau bat (PADAS) onestea, legezko xedapen horretan finkatzen den babes xedearen araberakoa eta administrazio aginpidedunek idatzitako plan sektorialen bidez garatuko dena. Abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuan ere, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldeko erabilpenerako eta kudeaketarako Egitamu Gidaria onesten duena, jaso zen legezko oharpen hori, horren 29. atalean eta gehigarrizko xedapenetatik hirugarrenean PADAS horren edukia eta beste programa batzuekiko erlazioa aipatzen baitziren. Erabilpenerako eta kudeaketarako Egitamu Gidariak PADASen helburu nagusia azpimarratu zuen, erreserbako lur ez hirigarrian parte hartzen duten produzkio arloen jarduerak sustatu, bideratu eta koordinatzean oinarrituta helburu hori, erreserba horren barruko udalerrietako hiri lur, lu hirigarri eta hiritzeko gai den lurrean izaera publikoa duten beste programa sozioekonomikoekin behar bezala koordinatzen dela zainduz beti ere.

Aipatutako arauetan xedatutakoa aplikatuz eta Europako Batasuneko Ingurugiroari buruzko V. Programan jasotako proposamenen, Aniztasun Biologikorako Hitzarmenaren eta Biosfera-Erreserbetarako Sevillako Estrategiaren esparruan, PADAS Euskal Autonomia Erkidegoko beste politika sektorialen esparruan osoko plangintza finkatzeko baliabide da, eragile ekonomiko eta sozialek epe labur, ertain eta luzera ekin behar diezaieten estrategia eta jarduerak aztertu eta definituz. Hala, lortuko da baliabide natural eta giza baliabideen aprobetxamendu euskorra, epe ertain eta luzera bertako bizilagunen bizi kalitatearen estandar jakin bat bermatuko duena, bai eta ingurugiroaren balioak gorde eta hobetzea ere.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

### N°-4699

DECRETO 258/1998, de 29 de septiembre, por el que se aprueba el programa de armonización y desarrollo de actividades socioeconómicas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

La Ley 5/1989 de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, prevé en su art.16 la aprobación, por parte del Gobierno Vasco, de un programa de armonización y desarrollo de actividades socioeconómicas (PADAS), acorde con la finalidad de protección que se establece en la citada disposición legal y que será desarrollado mediante planes sectoriales, redactados por las administraciones competentes. Dicha previsión legal, encontró nuevamente reflejo en el Decreto 242/1993 de 3 de agosto, por el que se aprueba el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que aludía, en su artículo 29 y disposición adicional tercera, al contenido de dicho PADAS y a su relación con otros programas. EL Plan Rector de Uso y Gestión subrayó el objetivo básico del PADAS, objetivo fundamentado en el impulso, orientación y coordinación de las diferentes actividades de los sectores de producción intervinientes en el suelo no urbanizable de la Reserva, cuidando, en todo caso, de su debida coordinación con otros programas socioeconómicos de carácter público que se realizasen en el suelo urbano, urbanizable o apto para urbanizar de los municipios integrados dentro de la mencionada Reserva.

En aplicación de lo dispuesto en las normas mencionadas y en el marco, asimismo, de las propuestas contenidas en el V Programa de Medio Ambiente de la Unión Europea, del Convenio para la Diversidad Biológica, de la Estrategia de Sevilla para las Reservas de la Biosfera, el PADAS se configura en un instrumento encaminado al establecimiento de una planificación integrada, dentro del marco de otras políticas sectoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante el estudio y definición de estrategias y actuaciones que es preciso acometer a corto, medio y largo plazo por el conjunto de agentes económicos y sociales, permitiendo un aprovechamiento sostenible de los recursos naturales y humanos que garantice a medio y largo plazo un determinado estándar de calidad de vida de sus habitantes, así como el mantenimiento y mejora de los valores ambientales.

Ikuspegi horretatik, PADAS delakoa, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldeko herritarrei egindako kontsultaren bidez egina, ekonomia eta ingurugiroaren artean dagoen agiria da eta garapenaren eta zaingoaren arteko bateragarritasunaren eredu erreala, batetik, eta toki eragileen dinamizazio eta kanpotik jarduerak jasotzeko eta toki ikuspegiak ere biltzeko tresna, bestetik, Urdaibai eskualde egin dadila sustatuz.

Edukiari dagokionez, PADAS egitarauak helburu eta estrategien multzo ordenatu bat erasten du, Urdaibaiko Biosfera-Gebenalderako berariazko garapen eredua finkatzeko balio dutenak, eta jarduteko linea batzuk ere, estrategia horiek ahal den neurrian zehaztu eta finkatzeko. Proposatutako ereduan jasotzen diren helburuak honako irudi prospektiboetan gauzatu daitezke:

– honako hauetan garatutako landa espazioa: multifuntzionalitatean, produzkio eta komertzializazioan, heziketan, enpleguan, emakumearen garrantzia nekazaritza ustiapenean, baliabide naturalen kudeaketa euskorrean eta oro har baserri inguruko bizi kalitateari eragiten dion orotan,

– arlo industrial lehiakorra, ingurugiroari errespetua zor diona, produkzio modu euskorrak garatu ditzana, enplegua sortarazteko gauza izan dadina eta ingurugiroaren aldetik dagoeneko degradatuta dauden eremuak birjaso ditzana lehentasunez,

– kanpoko kudeaketa, egituraketa eta sustaketan aurrera egin dezan arlo turistikoa, Urdaibaiko balioak jasotzen dituzten bisitariak erakartzeko modukoa eta horren etekin ekonomikoak lan aldetik gauzatu daitezenak,

– ondo komunikatuta dagoen lurraldea, bertan kokatutako azpiegiturak hobetu eta sustatu ditzana (portuak, trenbidea, errepideak, bideak, energia), hautatutako garapen ereduarekin bat datozen jarduerak erakartzeko ahalmena duena eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen eta hura garatzeko planen aurrikuspenen barruan arautua eta barrutik eta kanpotik inguruko beste alde batzuekin integratua, eta.

– baliabide eta ahaleginei ahalik eta etenik handiena ateratzen dien espazioa, administrazio publikoen eta eragile pribatuen arteko koordinazio handienarekin.

Helburu horien betetze maila, adierazleen bilakaera aztertuz eta horiek berrikusi eta hobetuz, PADAS delakoaren jarraipena eta sustapena egiteko arautzen diren tresnen bidez egiaztatuko da.

Desde esta óptica, el PADAS, elaborado mediante la consulta a la ciudadanía del ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, constituye, por una parte, un documento integrado entre la economía y el medio ambiente y un ejemplo real de la compatibilidad entre el desarrollo y la conservación, y por otra, un instrumento de dinamización de los agentes locales y captación de actividades desde el exterior, y también de aglutinación de visiones locales, apoyando la configuración de Urdaibai como comarca.

En cuanto a su contenido, el PADAS incorpora un cuerpo ordenado de objetivos y estrategias que sirven para fijar un modelo de desarrollo propio para la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y unas líneas de actuación que concretan y plasman en la medida de lo posible dichas estrategias. Los objetivos contenidos en el modelo propuesto pueden materializarse en las siguientes imágenes prospectivas:

– un espacio rural desarrollado en su multifuncionalidad, en la producción y comercialización, la formación, el empleo, el papel de la mujer en la explotación agraria, la gestión sostenible de los recursos naturales y en general todo lo que afecte a la calidad de vida del entorno rural,

– un sector industrial competitivo, respetuoso con el medio ambiente, que avance un modos de producción sostenibles, capaz de generar empleo y que preferentemente recupere áreas ya degradadas ambientalmente,

– un sector turístico que avance sobre todo en gestión, estructuración y promoción exterior, capaz de atraer visitantes que capten los valores de Urdaibai debidamente identificados y cuyos beneficios económicos se materialicen laboralmente,

– un territorio bien comunicado, que optimice y potencie sobre todo las infraestructuras existentes (puertos, ferrocarril, carreteras, caminos, energía), con capacidad de atracción de actividades en consonancia con el modelo de desarrollo elegido y articulado dentro de las previsiones de las Directrices de Ordenación del Territorio y sus Planes de Desarrollo e integrado interna y externamente con otras zonas de su entorno, y

– un espacio en el que se saque el mayor partido posible a los recursos y esfuerzos, con el máximo grado de coordinación en las administraciones públicas y los agentes privados.

El grado de consecución de estas metas, analizando la evolución de indicadores así como su revisión y optimización, será verificado, a su vez, a través de los instrumentos que se articulan para el seguimiento e impulso del PADAS.

Ondorioz, eta Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 16. atalean xedatutakoa aplikatuz, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldeko Zaingo Batzordearen aldeko irizpena izan ondoren, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko irailaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua onestea, hain zuzen, eraskinean jaso eta argitaratzen dena.

*2. atala.–* Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldean eskumenak dituzten administrazio publikoek egindako plan sektorialak eta alde horretan burutzen dituzten jarduera zehatzak dekretu honen onespen gai denaren, alegia, Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarauaren, 3. atalburuan jasotako helburu eta estrategiak lortzeko izango dira, horiekin bat etorrita egokienak diren aurrikuspenak erantsiz kasuan-kasuan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko irailaren 29an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

En virtud de lo hasta aquí expuesto y en aplicación de lo dispuesto en el art.16 de la Ley 5/1989 de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, previo informe favorable del Patronato de la Reserva de la Biosfera, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de septiembre de 1998

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Aprobar el Programa de Armonización y Desarrollo de Actividades Socioeconómicas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai que se incorpora y publica como Anexo al presente Decreto.

*Artículo 2.–* Los Planes Sectoriales que elaboren las Administraciones Públicas con competencia en el ámbito territorial de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y las actuaciones puntuales que las mismas acometan en la citada área, se encaminarán a la consecución de los objetivos y estrategias recogidos en el capítulo 3.º del Programa de Armonización y Desarrollo de Actividades Socioeconómicas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, objeto de aprobación por el presente Decreto, incorporando las previsiones que, en cada caso, se consideren más acordes con las mismas.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de septiembre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

ERANSKINA

# JARDUERA SOZIOEKONOMIKOEN EGOKITZAPEN ETA GARAPENERAKO EGITARAUA

## 1. Atalburua
## EGITARAUA EGITEKO ETA EGITURATZEKO ERABILI DEN METODOLOGIA

### 1.1.– METODOLOGIA

Agiri honek lanerako edukien ondorioak batzen ditu modu integratu batean. Ondorio horiek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako JAS.E.G.E.-a gertutzeko faseetan lortu dira. Horrela, taldeak prestatu dituen ekarpen nagusiak hauexek dira:

- Hasierako diagnostikoa. Agirien kontsulten eta elkarrizketen bidez prestatu dira. 1996ko abenduan amaitua.
- Jarraipen Taldeak eta udalerrietako ordezkariek egin dituzten batzarretako ekarpen eta oharrak.
- Udalerrien diagnostiko eta proposamenak. Alde geografikoen arabera egindako bost batzarren ondoriozko agiria; batzarrotara Udalek izendaturiko ordezkariak joan dira. 1997ko maiatzean amaitua.
- Sektorekako bost Lan Taldeek egin dituzten batzarretako oharrak eta ondorioak (nekazaritza eta baso sektorea, arrantza, ekonomi dinamizazioa eta industria, turismoa eta hirugarren sektorea orokorrean, azpiegiturak eta etxebizitza). Talde bakoitzarekin izandako bi batzar orokorren oharrak eta bakarka izandako batzarren oharrak (9 batzar). Horiek industria eta ekonomi dinamizazioko taldearen lana osatzen dute. 1997ko ekainean amaitua.
- Idazkaritza Teknikoak emandako txostenak eta sektorekako taldeen partaideek emandako agiriak nahiz ahozko jakinarazpenak.
- JAS.E.G.E.-aren barruan dauden beste lan talde batzuen ondorioak (ikasketak amaitu ondoren langabezian dauden gazteekin eta gazte lehiatsuekin izandako batzarra), edota Urdaibairen inguruan sortu diren lan taldeen ondorioak (Batzordeak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lehenengo Sektoreari buruz emandako Irizpena; 1996an batzartu ziren).

Espainiako MAB Batzordearen planteamendua Urdaibairen ezaugarrietara moldatu ondoren, azterketa sozioekonomikoa ondoko sektoreetan oinarrituz egin da: abelurra eta basoa; arrantza, industria eta ekonomi dinamizazioa; turismoa eta hirugarren sektorea; azpiegiturak eta etxebizitza. Horien barruan, lurzoru urbanizaezinean eragin handiena duten ekintzak azpimarra-

ANEXO

# PROGRAMA DE ARMONIZACIÓN Y DESARROLLO DE LAS ACTIVIDADES SOCIOECONÓMICAS

## Capítulo 1
## METODOLOGIA DE ELABORACION Y ESTRUCTURA ADOPTADA

### 1.1.– METODOLOGIA

El presente documento recoge de forma integrada las conclusiones de contenido ejecutivo obtenidas en el conjunto de fases de elaboración del Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. De este modo las aportaciones principales que se ha dispuesto han sido las siguientes:

- Diagnóstico de Partida. Preparado en base a consultas de documentación y entrevistas. Finalizado en Diciembre de 1996.
- Aportaciones y notas de las reuniones del Grupo de Seguimiento y representantes de municipios.
- Diagnóstico y Propuestas de los municipios. Documento derivado de un conjunto de cinco reuniones por zonas geográficas y asistencia de representantes designados por los Ayuntamientos. Finalizado en Mayo de 1997.
- Notas de las reuniones y conclusiones obtenidas de los cinco Grupos de Trabajo Sectoriales (agrario y forestal, pesquero, industria y dinamización económica, turismo y terciario en general, infraestructuras y vivienda). Notas de las dos reuniones generales mantenidas con cada grupo y de las individualizadas (9 reuniones) que complementan la labor del grupo de industria y dinamización económica. Finalización en junio de 1997.
- Documentos y comunicaciones verbales aportadas por miembros de los grupos sectoriales e informes aportados por Secretaría Técnica.
- Conclusiones de otros foros configurados en el P.A.D.A.S. (reunión con jóvenes titulados en paro y jóvenes emprendedores) o suscitados en torno a Urdaibai (Dictamen de la Comisión sobre el Sector Primario en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, reunidos durante 1996).

Adaptando el planteamiento del Comité Español MAB a las peculiaridades de Urdaibai se ha abordado el análisis partiendo de los siguientes sectores: agropecuario y forestal; pesca, industria y dinamización económica general; turismo y terciario; infraestructuras y vivienda. Dentro de ellos, se hace énfasis en las actividades con una mayor repercusión en el suelo no urbanizable, bien

tzen dira, bai betetzen duten espazioa dela eta, bai inguruneko elementuetan duten partehartzearen ondorioz. Horrela, hiri egiturara loturiko ekintzak (esate baterako, merkataritza) zeharka batzen dira.

Nazio Batuek Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Konferentziako (Rio 92) proposamenekin bat etorriz, JA.S.E.G.E.-ak Agendaren edo bertako 21. Egitarauaren erabilgarritasuna betetzen du. Agenda hori hiritarrei, erakundeei eta enpresa pribatuei galdetuta egiten da, jarduketa publikoko estrategiak lantzeko eta biztanleriaren garapen eutsigarriari buruzko kontzientzia handitzeko.

Biosfera Erreserbak, beste espazio natural babestu batzuen modura, giza ekintza bat mantentzen du. Giza ekintza hori kontuan hartu behar da proposaturiko garapen ereduan. Garrantzitsua da biztanleriaren protagonismoa nabarmentzea eta euren ekarpenak integratzea. Hori dela eta, JA.S.E.G.E.-a egiteko prozesuan, iritziek eta ekarpenek (ideiak, jarduketak...) ez dute murrizketarik izan metodologiaren aldetik; dena den, eztabaidaren beraren ondorioz, ñabardura batzuk egin zaizkie inguruan eraginik handiena izan dezaketen proposamenen edukiei eta ezaugarriei. Ekarpen hori proiektuaren hasierako ikuspegiarekin osatzen da (Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariaren eragina aztertzen da); halaber, aintzat hartzen dira nazioarteko foro eta hitzarmenetan (ingurugiroari eta garapenari buruzkoak) baturiko joerak ere. Horien artean hauexek aipa daitezke: Sevillako Estrategia Biosfera Erreserbetarako (UNESCO, 1995), Europar Batasunak Inguru Ekintzari buruz egindako V. Egitaraua (1993), Aniztasun Biologikoa Zaintzeko Hitzarmena (Nazio Batuen Hitzaldia Ingurugiroari eta Garapenari buruz, Rio 1992), Espazio Babestuetako Turismo Eusgarriari buruzko Europar Gutuna (egiten ari dira).

Proposatutako ekintzak aplikatzeko (euren kokapen espaziala, ezaugarriak eta abar azpimarratuta), eta ingurua zaintzearekin bateragarriak izango direla bermatzeko, E.K.E.G.-etik sorturiko tresna batzuk daude. Horiek ekintza lerro bakoitzarekin duten erlazioa adierazita dago.

Azkenik, eta metodologiari dagokionez, esan behar da JA.S.E.G.E.-a egiteko prozesuan koordinazio iraunkorra mantendu dela planifikazioari loturiko beste ekimen batzuekin: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Turismorako Egitamu Sektoriala (Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila), Busturialdeko Enpresa eta Industri Garapenerako Zentrua (SPRI) eratzeko proposamena eta URREMENDI Mendi-Nekazaritzako Elkartetik sustatutako ekintzak. Erabilitako baliabideak optimizatu eta ekimenak elkarri lotzeko erraztasunak eman nahi izan dira.

por la ocupación de espacio o por su intervención en los elementos ambientales, de este modo actividades fundamentalmente ligadas al entramado urbano (v.gr. el comercio) se recogen tangencial o indirectamente.

En línea con las propuestas de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y Desarrollo (Río 92), el P.A.D.A.S. cubre la funcionalidad de una Agenda o Programa 21 Local, instrumento que se elabora mediante la consulta a los ciudadanos, organizaciones y empresas privadas, para la formulación de estrategias de actuación pública e incremento de la conciencia de la población sobre el desarrollo sostenible.

La Reserva de la Biosfera, como otros espacios naturales protegidos vascos, mantiene una actividad humana que debe ser considerada y tenida en cuenta en el modelo de desarrollo propuesto. Es importante también que el protagonismo de la población local sea resaltado e integradas sus aportaciones. Por ello, en el proceso de elaboración del P.A.D.A.S. las opiniones y aportaciones (ideas, actuaciones...) no han contado con restricciones desde el punto de vista metodológico, si bien el propio debate ha generado matizar el contenido y características de las propuestas que en principio pudieran tener una mayor repercusión ambiental. Esta libre aportación se complementa con el enfoque de partida del proyecto (en el cual se analiza la incidencia del Plan Rector de Uso y Gestión) y la toma en consideración de las tendencias recogidas en diferentes foros y convenios internacionales sobre medio ambiente y desarrollo entre los que pueden destacarse: Estrategia de Sevilla para las Reservas de la Biosfera (UNESCO, 1995), V Programa de Medio Ambiente de la Unión Europea (1993), Convenio para la Diversidad Biológica (Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y Desarrollo, Río 1992), Carta Europea del Turismo Sostenible en Espacios Protegidos (en elaboración).

En orden a la aplicación de las actuaciones propuestas (incidiendo en su ubicación espacial, características, etc.), y garantizando su compatibilidad con la conservación ambiental, se dispone de los distintos instrumentos derivados del PRUG, cuya relación con cada una de las líneas de actuación se señala.

Por último, y dentro de los aspectos metodológicos, mencionar que en el proceso de elaboración del P.A.D.A.S. se ha mantenido una coordinación permanente con otras iniciativas de planificación como el Plan Sectorial de Turismo de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (Departamento de Comercio, Consumo y Turismo del Gobierno Vasco), la propuesta de constitución del Centro para el Desarrollo Empresarial e Industrial de la Comarca de Busturialdea (SPRI) y los estudios y acciones promovidos desde la Asociación de Agricultura de Montaña URREMENDI, optimizando los recursos empleados y facilitando el engarce de las iniciativas.

1.2.– AGIRIAREN EGITURA

Proposamenak atal hauetan egituratzen dira:

– JA.S.E.G.E.-aren erabilgarritasuna eta helburu nagusia

– Helburu estrategikoak eta estrategiak

– Jarduketa lerroak.

JA.S.E.G.E.-aren erabilgarritasuna (arauen bidez ezarria) lanaren hasierako proposamen metodologikoan garatu zen eta kutsu instrumental nabarmena du.

JA.S.E.G.E.-ak sustatzen duen garapen eredua helburu estrategikoetan (5) eta estrategietan (10) edo gidalerro handietan gauzatzen da. Horiek sektore askotara iritsi eta helburu nahiz tresnen arteko loturatzat erabiliko dira.

Euren azpian 22 jarduketa lerro daude eta horiek, ahal den neurrian behintzat, estrategiak zelan eta non eratu zehazten dute. Jarduketa lerro bakoitzean beraren helburuak aurkezten dira, baita bera garatzeko proposamenen multzoa ere (98 proposamen guztira). Lortutako aurrerapen maila aldakorra da eta, horretan, berritasun handi edo txikiagoa izateak eragin handia dauka. Izan ere, JA.S.E.G.E.-aren barruan sortutako aukerak izan daitezke, edota administrazio desberdinetan sortu eta martxan jartzen ari diren proiektuak. Azken ekarpen mota hori aintzat hartu eta integratzeko, kontuan izan da Egitamuak sektorekako politikak bateratzeko duen eraginkortasuna (horretarako, iradokizun batzuk egin zaizkio beraren edukiari). Azpimarratu beharra dago, JA.S.E.G.E.-a gertutzen izan den bitartean (eta partehartze prozesu handiak horretan izan duen eragina ahaztu barik), lehengo ideiak edota orain arte gauzatu bako jarduketak erabili direla.

Agiria sistematizatzeko orduan, ikuspegi integratua eta diziplinartekoa lortu nahi izan da, lan taldeetan erabilitako sektorekako ikuspegia gaindit000uz.

2. Atalburua

JA.S.E.G.E.-AREN ERABILGARRITASUNA ETA HELBURU NAGUSIA

Uztailaren 6ko 5/1989 Legeak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzkoak, 16. artikuluan, Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua egitea jasotzen du, baita sektorekako egitamu batzuk egitea ere.

Gero, abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari Buruzko Egitamu Gidaria onesten duenak, 29. artikuluan eta 3. xedapen erantsian, JA.S.E.G.E.-aren edukia eta horrek beste egitarau batzuekin duen erlazioa adierazten du:

1.2.– ESTRUCTURACION DEL DOCUMENTO

El conjunto de propuestas se estructura de acuerdo a los siguientes apartados:

– Funcionalidad y Objetivo General del P.A.D.A.S.

– Objetivos Estratégicos y Estrategias

– Líneas de actuación.

Los funcionalidad del P.A.D.A.S., establecida normativamente, se desarrolló en la propuesta metodológica que dio inicio al trabajo. Tal como puede observarse tiene un marcado matiz instrumental.

El modelo de desarrollo que promueve el P.A.D.A.S. se concreta en un conjunto de objetivos estratégicos (5) y estrategias (10) o grandes directrices, con un alcance intersectorial y de enlace entre objetivos e instrumentos.

Por debajo de ellas, un conjunto de 22 líneas de actuación concretan en la medida de lo posible cómo y dónde se plasman las estrategias. En cada una de las líneas se presentan los objetivos que persigue y una relación de propuestas para su desarrollo (un total de 98). El grado de avance logrado es variable, incidiendo en ello su carácter de mayor o menor novedad, derivado de ser desde opciones surgidas en el seno del propio P.A.D.A.S. hasta proyectos de las distintas administraciones en proceso de puesta en marcha. Este último tipo de aportaciones se han considerado e integrado teniendo en cuenta la virtualidad del Programa como armonizador de políticas sectoriales, señalándose por ello sugerencias a su contenido. Resulta de interés el destacar que dentro del periodo de elaboración del P.A.D.A.S., sin desdeñar que el amplio proceso de participación haya intervenido en ello, se han retomado ideas o iniciado actuaciones sectoriales hasta ahora no materializadas.

En la sistematización del documento se ha intentado lograr un enfoque interdisciplinar e integrado, superando la visión sectorial utilizada en la fase de grupos de trabajo.

Capítulo 2

FUNCIONALIDAD Y OBJETIVO GENERAL DEL P.A.D.A.S.

La Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, contempla en su artículo 16 la realización de un Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas y también de planes sectoriales.

Posteriormente, el Decreto 242/1993, de 3 de agosto, por el que se aprueba el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, señala en su artículo 29 y disposición adicional tercera el contenido de dicho P.A.D.A.S. y su relación con otras programaciones:

- «Erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua Lurralde Ekintza Egitamuak onetsi ahala idatziko da, eta beraren helburuak hauexek izango dira: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurzoru urbanizaezinean esku hartzen duten produkzio sektoreetako jarduerak sustatu, bideratu eta koordinatzea».

- «Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitarauak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoak, ahalegina egingo du Erreserbako udalerrietako hiri-lurretan, lur urbanizagarrietan edo urbanizatzeko gauza diren lurretan egin daitezkeen izaera publikoko beste programazio sozioekonomiko batzuekin behar bezala koordinatuta egoteko».

5/1989 Legean ezarritakoaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitarauari eta Egitamu Sektorialeei buruzko Txostena emango du, eta horiek guztiak onestea Eusko Jaurlaritzaren esku egongo da (18.3d. art.).

Lurzoru urbanizaezinetan zuzen edo zeharka eragina duten ekintza sozioekonomikoek JA.S.E.G.E.-aren azterketa eremua osatzen dute. Horrela, baliabide naturalak eta horien probetxugarritasuna ezezik, ekonomi sektoreak eta giza ingurua ere aztertzen dira. Horiek espazioa okupatu, hondakinak sortu, azpiegiturak egin eta abarren ondorioz duten garrantziak eragin nabaria du Biosfera Erreserbako giza-inguruak osatzen duen sistemaren barruan.

Horri dagokionez, Biosfera Erreserba (Egitamu Gidaria) izendatzearen ondorioz sortutako alderdiak eta Urdaibaiko eremuak hurrengo urteetan izango dituen erronkak nahiz zalantzak batzeko, ekintza multzo sistematikoa zehaztu da, bai sektore publikotik eta bai agente ekonomiko pribatuetatik. Testuinguru honetan, 5/1989 Legeak adierazitakoaren arabera, JARDUERA SOZIOEKONOMIKOEN EGOKITZAPEN ETA GARAPENERAKO EGITARAUA honelaxe egin da, ondoko helburu nagusia lortzeko:

Planifikazio integratu bat ezarri behar da, euskal autonomia erkidegoko beste politika sektorial batzuen barruan, ekonomi eta gizarte agenteek epe labur, ertain eta luzera burutu beharreko estrategia nahiz jarduketak aztertu eta zehaztuta. horrela, baliabide naturalen eta giza baliabideen probetxamendu eusgarria gauzatu ahal izango da, eta probetxamendu horrek, epe ertain eta luze batera, biztanleen bizi kalitate ona bermatuko du; gainera, ingurugiro baloreak mantendu eta hobetzeko aukera emango du.

- «El Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas de la Reserva se redactará simultáneamente a la aprobación de los Planes de Acción Territorial, y tendrá como objetivo fundamental impulsar, orientar y coordinar las diferentes actividades de los sectores de producción intervinientes en el suelo no urbanizable de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai«.

- «El Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas previsto en el artículo 16 de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, cuidará de su debida coordinación con otras programaciones socioeconómicas de carácter público que se realicen en el suelo urbano, urbanizable o apto para urbanizar de los municipios integrados dentro de la mencionada Reserva».

De acuerdo a lo establecido en la Ley 5/1989, el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai informará sobre el Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas y los Planes Sectoriales, correspondiendo la aprobación, de todos ellos, al Gobierno Vasco (Art.18.3d).

Las actuaciones socioeconómicas que afecten directa o indirectamente el suelo no urbanizable constituyen el espacio de análisis del P.A.D.A.S. De este modo, además de los recursos naturales y su aprovechamiento, se analizan sectores económicos y medio humano, cuya trascendencia a través de la ocupación del espacio, producción de desechos, infraestructuras, etc., incide obviamente en el conjunto del sistema ambiental-humano que constituye una Reserva de la Biosfera.

En este sentido, para conjugar los aspectos derivados de la declaración de la Reserva de la Biosfera con los retos e incertidumbres a los que se enfrenta el área de Urdaibai en los próximos años, se han definido un conjunto sistemático de actuaciones tanto desde el sector público como de los agentes económicos privados. En este contexto, tal como indica la Ley 5/1989 se ha realizado el PROGRAMA DE ARMONIZACION Y DESARROLLO DE LAS ACTIVIDADES SOCIECONOMICAS, en aras a lograr el siguiente objetivo general:

Establecimiento de una planificacion integrada, dentro del marco de otras politicas sectoriales de la C.A.P.V., mediante el estudio y definicion de estrategias y actuaciones que es preciso acometer a corto, medio y largo plazo por el conjunto de agentes económicos y sociales, permitiendo un aprovechamiento sostenible de los recursos naturales y humanos que garantice a medio y largo plazo un determinado estandar de calidad de vida de sus habitantes, asi como el mantenimiento y mejora de los valores ambientales.

Estrategien eta ekintza lerroen zehazpena oharpide honexetan oinarritzen da: planifikazio ekonomiko estrategiko on batek, gaur egun, agente guztiek hasiera-hasieratik parte hartzea behar du. Agenteok horiek burutzeaz arduratuko dira, eta proiektuaren planteamendu metodologikotik bertatik laguntzeko prest egongo dira.

Erabilitako metodologiak emaitza hauexek lortzeko aukera ematen du:

a) Biosfera Erreserba izendatzearen ondoriozko eskakizun normatiboak betetzea.

b) Egitamu integratu bat egitea. Bertan, eremu hori garatzeko aukera estrategikoak jasoko dira. Egitamuak lurralde eta ekonomi mailako alderdiak jasotzen ditu.

c) Aukera horiek gauzatzeko erabiliko diren jarduketa lerroak zehaztea.

d) Egitamua egitean parte hartzea; egitamua eskualdean eragina duten bertako nahiz kanpoko agenteen ondorioa da. Inguru, gizarte eta ekonomi dinamizaziorako tresna izango da.

Egitamua gauzatzen duten agiriek balio funtzional anitza dute:

- Oraingo kudeaketa eskarien edota proiektuaren ondorioz sortzen direnen gidalerro edo gidaliburua.
- Ekonomia eta ingurugiroa bateratzeko agiria.
- Garapenaren eta artapenaren arteko bateragarritasunaren adibidea; lurralde antolamenduko irizpideak eta eusgarritasun eredua aplikatuko dira. Urdaibaik jarduketa eredu izan behar du E.A.E.-ko gainerako eskualdeetarako, MAB egitarauaren filosofiaren arabera.
- Bertako agenteak dinamizatzeko eta kanpotik ekintzak hartzeko tresna.
- Bertako ikuspegien biltzailea; Urdaibaik eskualdetzat duen egitura bultzatu beharko da.

JA.S.E.G.E.-aren jarduketa lerroen garapenak, egitamu sektorialetan eta tresnen koordinazioan oinarrituz (E.K.E.G.-aren garapenean ezarritako tresnak), aukera ematen du Patronatuaren partehartzea finkatzeko, eskualdeko sektore guztiak biltzeko forotzat.

Praktikaren ikuspegitik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren JA.S.E.G.E.-a Egitamu Sektorialak garatzeko ildo zuzentzailea da. JA.S.E.G.E.-a, horrela, proposaturiko Estrategien, Jarduketa Lerroen eta Garapen Proposamenen izaera adierazlea du, hau da, izaera ez lotezlea. Hori dela eta, abian jartzen diren Egitamu Sekto-

La definición de las estrategias y líneas de actuación parte de la consideración inicial de que, en el momento actual, una adecuada planificación económica de carácter estratégico requiere la participación desde sus orígenes de la totalidad de agentes encargados de su ejecución con la vocación inicial de contribuir y coadyuvar a su materialización desde el propio planteamiento metodológico del proyecto.

La metodología empleada ha permitido abordar los siguientes contenidos:

a) Cubrir las exigencias normativas emanadas de la declaración de la Reserva de la Biosfera.

b) Elaboración de un plan integrado en el que se contemplen las opciones estratégicas para el desarrollo del área. El contenido del plan incluye aspectos territoriales y económicos.

c) Definición de líneas de actuación en que se traducen dichas opciones.

d) Participación en el mismo, tanto en su realización como resultado de los agentes locales y externos con incidencia comarcal, constituyéndose en un instrumento de dinamización ambiental, social y económica.

Los documentos en que se materializa el programa poseen un valor funcional múltiple:

- Como directriz y manual de actuación de instancias de gestión existentes o que se configuran como consecuencia del proyecto.
- Como documento integrador entre la economía y el medio ambiente.
- Como ejemplo real de la compatibilidad entre el desarrollo y la conservación, aplicando criterios de ordenación territorial y un modelo de sostenibilidad. Urdaibai debe ser un ejemplo de actuación para comarcas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo a la filosofía del propio programa MAB.
- Como instrumento de dinamización de los agentes locales y captación de actividades desde el exterior.
- Como aglutinador de visiones locales, apoyando la configuración de Urdaibai como comarca.

El desarrollo de las líneas de actuación del P.A.D.A.S.a partir de los planes sectoriales y en coordinación con los instrumentos de desarrollo del P.R.U.G., permite consolidar la participación del Patronato como foro de encuentro en la comarca.

A sus efectos prácticos, el P.A.D.A.S. de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai ostenta la naturaleza de una directriz orientadora para el desarrollo de los Planes Sectoriales. De esta forma, dado el carácter indicativo y, por lo tanto, no vinculante de las Estrategias, Líneas de Actuación y Propuestas de Desarrollo que se proponen,

rialetako jarduketa zehatzek egokien deritzoten aurreikuspenak edo berriak sartu edo proposatuko dituzte. Aurrekuspen horiek, agiri honetan agertzen ez badira ere, interesgarriak izan daitezke agiria formulatzeko unean. Azken finean, JA.S.E.G.E.-a ez da agiri itxia; alderantziz, JA.S.E.G.E.-aren helburua gogoetak eragitea da, etorkizuneko agiri irekia eta bizia den neurrian.

## 3. Atalburua
## HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA ESTRATEGIAK

JA.S.E.G.E.-ean proposaturiko jarduketa eta garapen eredua azterketan oinarrituriko lan sistematiko baten ondorioa da. Datu eta magnitude sozioekonomikoetan oinarrituz, baita Erabili eta Kudeatzeari Buruzko Egitamu Gidariaren edukian ere, diagnostiko sakona egin da. Ahultasunak, indarrak, mehatxuak eta aukerak detektatzeak (orokorrean eta sektore bakoitzean) aukera eman du Urdaibaiko etorkizuna eraikitzeko moduak zehazteko, beti ere partehartze maila handi batekin.

Egindako diagnostikoaren arabera, ahultasun eta mehatxuetako abiapuntua honexek bereizten du: nekazaritza, arrantza eta industri sektoreetan gero eta lan gutxiago egoteak; bilakaera negatibo horrek, lehenengo sektore biei dagokienez, eragin handiagoa izan du Urdaibaien beste alde batzuetan baino, horiek pisu handia baitute bertako ekonomian (biztanleriaren %16,6 lehenengo sektorean dabil lanean, eta Bizkaia osoko kopurua, berriz, %2,4koa da). Industriaren kasuan (eraikuntza ere barne, Urdaibaien lanean dabiltzan biztanleen %39,2), birmoldaketa prozesuak zalantzazko inguru orokorra sortu du, kanpoko eskualdeetako eskumenak indartzen ari diren bitartean. Hirugarren sektorea orain arte ezin izan da beste sektoreen eskulanaren soberakinen aterpea izan, ezta lan merkatura sartzen diren gazteen aterpea ere. Turismoak (hondartzako txangozaleak eta Gernikako Batzar Etxearen bisitariak) ez dio bertako erakargarritasunek merezi duten aberastasuna ekarri Urdaibairi.

Gizarte alderdiei dagokienez, gazteek lan arazoak eta etxebizitza lortzeko arazoak dituzte (bigarren etxebitza batek prezioetan sortzen duen presioa dela-eta); beraz, emigratu egiten dute eta, horrela, biztanleriaren piramideak gizartea zahartzen doala erakusten du. Eskualdeak 44.000 biztanle ditu eta kopuru hori egonkortuta dago. Fenomeno horren eragina nekazaritza guneetan detektatzen da ondoen; baliabide ekonomiko urriko udalak dira eta, kasu askotan, berreraiki egin behar izaten dira, desanexio prozesuren baten ondorioz. Ba-

los Planes Sectoriales, o las actuaciones puntuales que se acometan, incorporarán o propondrán finalmente las previsiones que se estimen más acordes o aquellas nuevas, que sin haberse considerado en este documento, resulten de interés en el momento de su formulación. En definitiva, el P.A.D.A.S. no pretende ser un documento cerrado y finalista, al contrario, su vocación es la de servir de marco de reflexión a modo de documento abierto y vivo de futuro.

## Capítulo 3
## OBJETIVOS ESTRATEGICOS Y ESTRATEGIAS

El modelo de desarrollo y las actuaciones propuestas en el P.A.D.A.S. son fruto de un trabajo sistemático y fundamentado en el análisis, que partiendo inicialmente de datos y magnitudes socioeconómicas, así como del contenido del Plan Rector de Uso y Gestión, ha profundizando posteriormente en un diagnóstico. La detección de las debilidades y fortalezas, amenazas y oportunidades, en conjunto y en cada sector, además de la visión desde los municipios, ha permitido definir los modos de hacer el futuro en Urdaibai y siempre con un elevado grado de participación.

El punto de partida, según el diagnóstico elaborado, viene marcado en las debilidades y amenazas, por la progresiva reducción de empleo en el sector agrario, pesquero e industrial, con una evolución negativa que en Urdaibai ha tenido una mayor incidencia en los dos primeros que en otras zonas, en razón al fuerte peso de los mismos en su economía (16,6% de población ocupada en el sector primario, frente el 2,4% en el conjunto de Bizkaia). En el caso de la industria (que supone incluyendo la construcción un 39,2% de la población ocupada en Urdaibai), los procesos de reconversión han creado un ambiente general de incertidumbre, acentuado por el incremento de la capacidad de competir y atraer actividades de otras comarcas. El sector terciario, no ha podido ser hasta ahora refugio de los excedentes de mano de obra de los demás sectores y de los jóvenes que se incorporan la mercado laboral, en la medida de sus potencialidades. El turismo, compuesto fundamentalmente por excursionistas playeros y visitantes de la Casa de Juntas, presenta efectos de cierta masificación, sin haber proporcionado aún a Urdaibai la riqueza que merece por sus atractivos.

En cuanto a aspectos sociales, la población juvenil, con problemas de empleo y acceso a la vivienda (por la presión sobre los precios que representa la demanda de segunda residencia), sigue emigrando, lográndose de este modo una pirámide de población con evidentes síntomas de envejecimiento. La población total, de 44.000 habitantes está estabilizada. Es en los núcleos rurales donde más puede detectarse los efectos de este fenómeno, con unos municipios de escasos medios económicos y que en no pocos casos se enfrentan a su reconstitu-

serrian lan mota asko egiten dira eta bertako baliabideak oso ondo erabilita daude, baina berori ere aldaketa prozesu batean sartu da, beste leku batzuetan gertatu den bezala.

Alderdi ekonomikoak aztertzean, dinamizaziorako eta eskualde mailako ikuspegirako gaitasun urria dago, hori bistakoa da; gainera, ez dago koordinazio eta indar-batze handirik ere, garapena sustatzeko orduan.

Zorionez, eskualde honek ahalmen eta indar handiak ditu, JA.S.E.G.E.-a egitean sortu diren proposamen eta proiektu kopuru handiak frogatu duenez (horietako asko bertako agenteek egindakoak dira). Ondoko baliabideak erabiltzeko aukera izateak etorkizunari baikortasunez begiratzeko aukera ematen du: nekazaritza espazioa eta paisaje baliotsuak; ondare, histori eta kultur baliabideak; Bermeoko portua eta beraren inguruan dagoen transformazio industria bezalako gune ekonomikoak; entzute handiko produktuak edota aurrerantz doazen enpresak Gernikan; edo hezkuntza eta partehartze-kultura zabaleko giza baliabideak (ehun pertsonatik gora lagundu dute JA.S.E.G.E.-a egiten); eta, azkenik, eskualdea Biosfera Erreserbatzat identifikatzea.

Erronka horiei aurre egiteko modua estrategi kopuru antolatu bat egitea da; horretarako, Biosfera Erreserbarako garapen eredu zehatza finkatu behar da. Marko horrek biztanleen, sektore ekonomikoen eta baliabideen (horiek mantendu nahiz hobetzeko) beharrizanei erantzun nahi die. Biosfera Erreserba izatean, Urdaibai leku egokia da jarduketa berritzaileak aplikatzeko eta horiek, gero, Euskal Herriko beste alde batzuetara estrapolatu ahal izango dira.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako garapen eredua benetan errotuta egon behar da, Urdaibaien eragiten duten sektore bakoitzaren politika sektorialarekin. Politika horietako batzuk derrigorrez bete behar dira; izan ere, batzuk Europako Zuzendaritzatik eta beste batzuk Euskal sektoreen plangintzatik datoz. Horrek ez du esan nahi, ordea, Urdaibaien garapen ekonomikorako eta natur baliabideak hobetzeko aukera emango duten politika berriak aplikatuko ez direnik. Erronka horiek gainditzeko modua, bestalde, planifikazio sektoriala zehaztetik dator. Urdaibaiko kasu zehatzerako, egitamu orokorreko eta sektorialeko helburuak nahiz ekintzak garatuko eta aprobetxatuko dira, eta egitamu horietan zein Urdaibaiko EKEGean agertzen den garapen eredua sustatuko du.

Oso sakonak ez izanda ere, ondoko egitamu estrategikoek (Legebiltzarrak onetsi egin ditu) eragin handia dute Urdaibaien, sektore eta lurralde mailako politikak aplikatzeari dagokionez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Artezpideak.
- Basoei buruzko Euskal Egitamua, 1994-2030.

ción como tales, tras recientes procesos de desanexión. El caserío, como forma de ocupación dispersa y sabiamente utilizadora de los recursos, también ha entrado, como en otros lugares, en fase de cambios.

La escasa capacidad de dinamización y visión comarcal al abordar los aspectos económicos es una percepción generalizada, así como la insuficiencia en la coordinación y suma de fuerzas en el impulso al desarrollo.

Afortunadamente, las potencialidades y fortalezas de esta comarca son notables, tal como queda demostrado en el elevado número de propuestas y proyectos surgidos en la elaboración del P.A.D.A.S., muchos de ellos aportados por los propios agentes locales. La disposición de elementos como un espacio rural y paisajes valiosos, recursos patrimoniales, históricos y culturales; centros económicos como el puerto de Bermeo y su entorno de industria transformadora; productos de prestigio y empresas tractoras en progresión en Gernika o los recursos humanos con amplia formación y cultura de participación (más de un centenar de personas han participado en la elaboración del P.A.D.A.S.), además de la identificación como Reserva de la Biosfera, permiten afrontar con optimismo el futuro.

La forma de abordar estos retos, configurando un cuerpo ordenado de estrategias, supone fijar un modelo de desarrollo propio para la Reserva de la Biosfera, marco que pretende responder de una manera integrada a las necesidades de los habitantes, los sectores económicos y el mantenimiento y mejora de sus recursos naturales. La condición de Urdaibai como Reserva de la Biosfera le confiere la cualidad de ser un lugar idóneo para aplicar actuaciones innovadoras que puedan ser luego extrapolables a otras zonas del País Vasco.

El modelo de desarrollo de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai debe tener un entronque real con las políticas sectoriales de cada uno de los sectores que inciden en Urdaibai. Algunas de estas políticas son de obligado cumplimiento al emanar de Directivas europeas y otras proceden de la planificación sectorial vasca. Ello no obsta para que en Urdaibai se apliquen políticas innovadoras que permitan el desarrollo económico y la mejora de los recursos naturales. La forma de abordar estos retos proviene de una concreción en la planificación sectorial, aprovechando y desarrollando para el caso concreto de Urdaibai los objetivos y acciones previstos en los correspondientes planes generales y sectoriales y potenciando el modelo de desarrollo contemplado en los mismos y en el propio P.R.U.G. de Urdaibai.

Sin ser exhaustivos, los siguientes planes estratégicos tienen incidencia sobre Urdaibai en la aplicación de las políticas sectoriales y territoriales, habiendo sido aprobados todos ellos en el Parlamento Vasco:

- Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Plan Forestal Vasco 1994-2030

- Euskal Baserria Garatzeko Jarduketa Egitamua, 1997-2000.
- Arrantzarako Egitamu Estrategikoa, 1995-2003.
- Nekazaritza eta Arrantzarako I+G Euskal Egitamu Estrategikoa.
- Etxebizitzarako Zuzendaritza Egitamua, 1996-1998 «Etxebide».

Urdaibaiko garapen eredu horren ondorioz, jardueren banaketa orekatuagoa izango da sektoreetan eta espazioan. Eskualde horrek biztanle gune nagusi bi ditu, baina baita nekazaritza espazio baliotsua ere, eta bertan zenbait ezarkuntza egin daitezke bera suspertzeko. Urdaibaiko betiko sektoreen aldeko apostuak horien eta baliabide naturalen artean sinergiak lortu nahi ditu, baita beste jarduera ekonomikoak modu integratu batean sustatzea ere. Antolamendua, oreka, koordinazioa, berrerabilera eta berrikuntza berbak (besteak beste) proposaturiko ereduaren ezaugarri nagusiak izan daitezke; eredu horien helburu estrategikoak ondoko irudi prospektiboetan gauzatzen dira:

1.– Baserri ingurua funtzio aniztasunean, produkzioan eta merkaturatzean, prestakuntzan, lanbidean, emakumeak nekazaritza ustiapenean duen zereginean, natur baliabideen kudeaketa eusgarrian eta, orokorrean, baserri inguruko bizi kalitateari eragingo dion guztian garatuko da. Hori guztia, berriz, honexetan gauzatuko da:

1.1.– Natur balioak zainduta eta areagotuta dituen espazioa.

1.2.– Biztanleentzat erakargarriagoa eta emankorragoa izan behar duen baserri ingurua.

1.3.– Nekazaritzako eta arrantzako produktuak; horiek bertako ekonomian utziko dute euren gehiegizko balioaren zati handiena.

2.– Industri sektore lehiakorra, ingurugiroa errespetatzen duena; batez ere, hondaturiko aldeak berreskuratu beharko ditu, produkzio modu eusgarriak landuko ditu, eta lana sortzeko gauza izango da.

3.– Batez ere kudeaketan, egituraketan eta kanpoko sustapenean diharduen turismo sektorea; gauza izan beharko du Urdaibairen baloreei (horiek identifikatu ondoren) erreparatzen dieten bisitariak erakartzeko, eta beraren etekin ekonomikoak lanean gauzatu beharko dira.

4.– Ondo komunikaturiko lurraldea; batez ere, bertako azpiegiturak optimizatu eta bultzatu beharko ditu: portuak, trenbidea, errepideak, bideak, energia. Jarduerak erakartzeko gaitasuna izan beharko du, ondoko Gidalerroen eta Egitamuaren aurreikuspenetan aukeratu eta artikulaturiko ereduaren arabera: Lurraldea Antolatzeko Artezpideak eta Lurzoruei buruzko Lurralde Egitamu Sektoriala Jarduera Ekonomikoetarako. Gainera, barrutik eta kanpotik ere inguruko eskualde batzuekin integratuta egon beharko du.

- Plan de Actuación para el Desarrollo del medio Rural Vasco 1997-2000.
- Plan Estratégico de Pesca 1995-2003.
- Plan Estratégico Vasco de I+D Agropesquero.
- Plan Director de Vivienda 1996-1998 «Etxebide».

